

Aka Demia Kid Ben hAinbat iruzki

1 11 Akademiako kideen hainbat iruzkin bildu dugu oraingoan ere, irakurri dituzten obren gaineko iritzia azaltzeko. Akademiakidearen izen-abizenik ez dugu zehaztu, ez baikenuke inor iritzia ematera beldurtu nahi. Egin zaitez zu ere akademiakide eta bidaliezazkiguzu zure iruzkinak!

Argitaratu gabeko gainerako iruzkin guztiak ikusgai: www.111akademia.com

1512. Nafarroa, in memoriam

Juan Luis Landa

- Nafarroa ez zela 1512an nahita Gaztelara betiko lotu. Ematen du gero eta datu esanguratsu gehiago ari direla azaltzen kontu horri buruz. Eta kontua pil-pilean dago komunikabideetan, "loturaren" bosgarren mendeurrena betetzen den urte honetan. Badut lagun bat nobela historikoak atsegin ez dituenak, ez delako argi geratzen maiz zer den Historia eta zer Literatura. Baina Landak berak nonbait esana dauka liburu honetan zer den asmatua eta zer datu eta gertaera historiko. Beraz, Historia inolako gehigarririk gabe irakurtzea nekeza zaionari liburu hau eramangarriagoa egingo zaio. Baina horretan ez dio soilik literaturak lagunduko, baita marrazkiek ere. Ze marrazkiak, aizue! Nik lehendik ezagutzen nuen Landaren trebetasun zirraragarri hau, Toti Martinez de Lezearen liburu bat baino gehiago ilustratua baitu. Eta orduko miramenak irauin egin du nigan.

Esan ohi da oparirik ederrenak norberak egiten dizkiola bere buruari, eta nik horixe egin nuen. Liburu nire oparia izango zen, niretzat. Pozik ikusiko nuke Landaren marrazkien plantilla originalekin, inprentara joaten diren marrazki horiek in osatutako erakusketa bat.

Liburu amaginarrebari erakutsi nionean, zera esan zidan, marrazki hauek El Prado museoan eskegitzeko modukoak direla. Pentsa! Bada besterik. Bizi dugun krisi latz honetan horrelako liburu bat argitaratzea Erein argitaletxeak egin digun opari ordainezina da. Eskerrik asko, Erein, eta eskerrik asko, Juan Luis Landa. **(DONOSTIA)**

Beste norbaiten zapatak

Garazi Kamio

- Izen berria euskal literaturan Garazi Kamiorena, eta itxaropentsu egoteko modukoa da. Bere lehen liburu hau Igartza bekari esker plazaratu du eta ondo merezitako beka izan dela egiaztatu dut. Nahiz eta ipuinen maila oso parekoa izan, azken ipuina bikaina iruditu zait eta oso zapore ona utzi dit.

Oso liburu gomendagarria, Garazi Kamioren bigarren lanaren zain geratzen naiz.

(BILBO)

Boga boga

Itxaro Borda

- Hasieran darabilen euskalkiarengatik, zail samarra egin zitzaidan, hitz askoren esanahia ulertzen ez nuelako eta irakurtzea ere kosta egiten zitzaidalako. Bestalde, aipatzen zuen gaia ere askotan erabilia zeneko susmoa sortu zitzaidan. Baina, pixkanaka, zenbait hitzen goxotasunak eta trama berak ere harrapatu egin naute. Euskal Herriko hainbat gertaeretan Iparraldeko biztanleen ikuspegia eta jarrera ezagutarazi dizkit eta gerra zikinaz daukagun ideiaz ere beste ikupuntu bat eman dit, hala nola, gerra zikina erakunde barruan ere eman dela erakusten duena. Azkenean, liburu amaitzean penaz geratu naiz. **(ALEGIA)**

Egia

Arrate Egaña

- Egia aitortzera, liburuak epel utzi nau, harrিতa ere bai. Liburu hau saritua izan da; saritzeak harrিতa nau, epaimahaia zeintzuk osatzen zuten ikusita batez ere, badira eta nor antzerkiaren alorrean. Eta zer-

bait ikusiko zioten nik ikusten asmatu ez dudana: gaia bera gaurkotasan handikoa iruditzen zait, eta egunen batean taularatuko balitz eta antzezleekin asmatuz gero, obra txukun bat egin daitekeela esango nuke, baina nire uste apalean intentsitatea falta zaie bai elkarrizketei, bai haria emateko moduari, eta bukaera ere ez zait oso indartsua iruditzen. Baina aldaketa batzuk sartuta, pozik ikusiko nuke obra hau aretoren batean. Beno, oraindik ez dut esan zeri buruzkoa den. Berriki kontatu didate apaiz batek konfesio-sekretua baliatuz bere parrokiario bati nola ostu zizkion Espainiako probintzia batean lurpean gordeta zeuzkan txanpon batzuk. Hilak daude biak. Bada, pentsa antzeko zerbait egiten duela zure terapeuta ohiak, bezero eta terapeutaren arteko sekretua urratu, eta kontu horiek Egia izeneko erdi-sekta moduko batean dagoelako –sektarena nik jarria da– blog batean plazaratu, hori bai, bezeroaren izena aldatuta, baina aldaketa hori gorabehera, bezeroa nor den jakiteko moduan. Gaur egun, internet, Google, Anaia Handi baten gisara ari dira funtzionatzen, eta gero eta zailago egingo zaigu gure intimitatea guretzat gordetzea. Gaia interesatzen? Bada, irakurri antzezlan hau: 75 orrialde dira. **(DONOSTIA)**

Etxekalte

Harkaitz Zubiri

- Enpresa bateko arazo batek eleberri honetako protagonistak –lau gizonezko eta emakumezko bat– mugiarazten ditu. Arazo horren balizko eta benetako konponbideek bultzatuta, pertsonen artean dauden harremanak aldatu egiten dira liburuan zehar eta aldaketa hauek, lan istorioarekin batera,

interesgarri egiten dute nobela: Nolabait esateko, ez da beharrezkoa Euskal Filologia ikaste *Etxekalte* irakurtzeko –esaldia motzak dira, sintaxia korapilori gabekoa– eta, oro har, bezele modukoa dela esan dezakegu. Oporretara eramateko oso liburu egokia. Bestetik, hain gutxi irakurtzen den hizkuntza honentzat lagungarria izan daiteke halako liburu gehiago plazaratzea, euskal irakurle –euskaraz irakurtzen dute irakurle– gehiago sortarazteko **(DONOSTIA)**

- Anaitasuna S.A lantegian amiantoak aita hil diola frogatu nahi di Josuk, protagonistetako batek Hori da istorioaren abiapuntua Hortik aurrera, bere ingurua beste hainbat pertsonaia biltzeri dira: enpresako lankideak, neskalagun ohiak, sindikatuetak arduradunak, nagusiaren semea... Kontakizunari nortasun eta indar handia ematen dizkior pertsonaia multzoa. Kapituluak pertsonaien arabera tartekatuta, doaz, haien arteko enkontrual eta bizitzak korapilatuz. Oso ongi erretiratzen ditu harremanak bikoteen artekoak, aita-semeen artekoak, enpresa barruko lankideen artekoak... Harreman galduak, interesatuak, faltsuak, zintzoak ere bai... Hasieratik erraz eraman nait nobelak, eta bukaerak ez dit hutsik egin. Liburu gomendagarria zalantzarik gabe **(ZARAUTZ)**

Hodeien adorea

Yoseba Peña

- Lehendabiziko nobela honek Yoseba Peñak idazmolde berezia aukeratu du: bakarrikzeta batek osatzen du liburuaren egitura, protagonista nagusiaren kontzientziaren ahotsa. Bakarrikzeta hau hari ezberdine: josita dago eta horregatik ez da beti erraz irakurtzen, ahalegin eskatzen dio irakurleari. Beste